

# INTZA, XABIN ETA GIBA



2022 urtea amaitzear zela, nire barrua askatzeko aukera izan nuen. Telebista saio batetara joan eta bertan egin nuen aitortza: bai; seropositiboa ere banaiz. Beste gauza askoren artean, hau ere, banaiz. Eta ez zait inoiz ahaztuko egun hartan sentitu nuena.

2013an diagnostiko hura jaso nuenetik, esku artean, nire kontrolpean izan nuen sekretu hura, urrundu zela sentitu nuen. Edo ez zela gehiago sekretua izango behintzat. Habia utzi eta hegan hasten den torre txori txikiaren antzera. Inoiz gehiago ez da itzuliko habira. Hegan egiten hasi da eta ez da geldituko. Diferentzia nagusia, nik hamar urte egin ditudala habi-zuloan.

Ordutik, hilabete batzuk pasa dira. Eta txoritxo gustura dabilela esan ahal dizuet. Arin arin, irribarrea ahoan, airean dantzan. Prozesu guztiz sendagarria izaten ari dela konturatu naiz. Niretzat, eta baita nire alboan bizi diren gainontzeko torre txorientzat ere.

Prozesu honen emaitza nagusietako bat, oraingoz, KANPORA SARTZEN izeneko lana da. Azken urteotan bizi izan dudanaren errepaso gordina egiten duen komedia. Ezagun eta ezezagunen aurrean jarri eta inoiz ez bezala biluzteko aukera ematen didan antzerki obra.

Eta KANPORA SARTZEN hasi naizenetik, jende zoragarri gehiago ezagutzeko aukera izan dut. Tartean, gaur nire parean dudan neska gazte hau. Nirekin

oholtzara igotzen den emakumea. Birusari ahotsa eta bizia ematen diona. Eta niri sekulako babesa eta segurtasuna eskaintzen didan aktore handia. Intza Alkain.

Intza: Bueno, handi handia...

Xabin: Oso handia. Hilabete batzuk besterik ez dira igaro elkar ezagutu ginenetik baina zenbat poz ekarri duzun nirera. Nik orri zuri batean idatzi nuenari bizitza eman diozu, eta nik inoiz imajinatuko nuena baino politagoa egin duzu dena... baina hasierara joanda, Intza:

Zer pentsatu zenuen Txalo konpainiak proiektura batzeko proposamena egin zizun lehen momentuan?

Intza: Bada, hasiera batean ez zidaten pertsonaiaren berri eman. Proiektua azaldu zidaten eta bertan Xabin Fernandez izeneko tipo batek GIBa zuela jakin zuenetik bizitutakoak kontatuko zituela antzezlanean. Ni, bere kidea izango nintzela oholztan. Baina besterik ez... Ondoren, testua irakurri nuen eta hor bai, hor jakin nuen birusa izango nintzela. Hasiera batean, egia esan behar badut, kezkatu egin nintzen. Eta nola interpretatzen da birus bat? Egia esan, GIBaz ezer gutxi nekien. Agian, hori zen nire kezka iturria. Baina erronkari aurre egiteko prest nengo!

Xabin: Zer zenekien bada zuk GIB birusari buruz, KANPORA SARTZEN proiektua ezagutu aurretik?

Intza: Esan bezala, ezer gutxi. Nik GIBa IHESaren eragilea zela banekien, hortaz, gauza bera zirela uste nuen. IHESA jendeak erabiltzen zuen izena zela eta GIBa medikuntzan erabiltzen zena. Eta gauza bera, IHESari buruz ere gauza askorik ez. Nik uste 80-90. hamarkadetatik iritsi zaigunaren oihartzuna, besterik ez. Eta guztia aurreiritziz eraikia zegoela banekien arren, aurreiritziak besterik ez nituen ezagutzen. Hau da, oihartzun hori IHESaren inguruko aurreiritziak ziren, eta ez benetakoa ihesaren inguruko informazioa. Ba, honen erruz jende asko hil zela, beraz, arrisku handikoa zela. Sexu praktiken bitartez kutsatzen zela edo odol transmisio baten bitartez, eta horregatik heroinaren kontsumoa ugaritu zen urteetan jende asko kutsatu zela. Eta zortez, banekien egun tratamendua badagoela eta kontrola zitekeela, baina hau nire familiako gertuko persona batek GIBa duelako eta tratamendua hartzen zuela banekielako,

bestela badakit ez nuela horren berririk ere izango, soilik iturri horretatik jakin baitut. Xabin: Beraz, gaia ez zen guztiz berria zure inguruan. Etxean eta/edo lagunartean kontatu zenuenean (GIB birusa izango naiz!), ze erreakzio izan ziren?

Intza: Denetatik! Baina nola birusa? Nola interpretatzen da hori? Beste batzuk, berriz, hostiaaa! Gai delikatua ezta? Eta antzerako erreakzioak jaso ditut. Orokorrean, harritu egin da jendea.

Xabin: Nik ere erreakzio asko jaso ditut denbora honetan, baina aitortuko dizut batek baino gehiagok erantzun didala: eta zer da hori? Ez dakit zertaz hitz egiten ari zaren... Zorionez, zuk baiezkoa eman zenion proposamenari eta hemen zaude nire ondoan. Eta naiz eta gertuko kasuren bat aurretik ezagutu, zer da lehen jakin ez eta orain ikasi duzuna?

Intza: Bada egia esan gauza asko: batetik, GIBa eta IHESA ez direla gauza bera. Hau da, GIBa birusa dela baina ez gaixotasuna. Egun, GIBa kontrolatzeko tratamendua dagoenez, IHESA garatzen duen jende gutxi dagoela, tratamendu honen bitartez jendea gaixotzetik salbatzen delako. Tratamenduaren berri ere izan dut: badakit, zure kasuan, bi pilula hartzen dituzula, egunero, gauero eta honen eboluzioa ere oso kontrolatua izaten dela odol analisisen bitartez. Hortaz, orain badakit tratamendua hartzen duen persona bat inor baino seguruagoa bilakatzen dela sexu harremanak edukitzerakoan, adibidez.

“Detektaezina” eta “transmitieezina” terminoak ere ikasi ditut: badakit egun tratamendua hartzen duen personaren birus karga oso txikia dela normalean eta beraz ezin duela birus hori beste norbaiti transmititu eta odolean detektaezina edo atzemaniezina bilakatzen dela: hau da, egoera honetan dagoen seropositibo batek,

# INTZA, XABIN ETA GIBA

→ ezin duela inor infektatu. Jendeak nik obra honekin ikasi dudan guztia jakingo balu, gaixotasunaren inguruko aurreiritzi asko ekidingo lirateke...

Xabin: Zer da gehien harritu zaituena?

Intza: Orokorrean gaiaren inguruan gizartearen dugun ezagutza ezak harritu nau. Ohartzeak ezer gutxi nekiela harritzekoa iruditu zait. Bereziki, larritzat hartzen delako egun hain larria ez den gaixotasun bat. Horretaz gain, datu asko jakin

ditut: Saudi Arabiara edo Siriara ezin duzula bidaiatu, seropositiboak zarelako, esaterako.

Xabin: Nik ere hori orain gutxi jakin dut. Eta orain urte batzuk, arazoak izango nituela polizia edo taxista izateko... ez sinistekoa. Zure kasuan, asko aldatu dira zure ideiak eta batez ere beldurra gaiarekiko?

Intza: Beldurrik ez nuen, egia esan, baina ideiak erabat! Aurretik esan dudan guztiagatik zehazki. Gutxi dakigu gaiaren inguruan eta ezjakintasun horrek

*Xabin*  
**FERNANDEZ  
ZUBELDIA**

*Intza*  
**ALKAIN  
IBARGUREN**

**KANPORA  
SARTZEN**

*#zeharopositibo*

*zuzendaria*  
**AITZIBER  
GARMENDIA  
MENDIZABAL**

**TX4LO**

BANAETA  
ITALIA PRODUKZIOAK  
JULIEN ANTOINETTEKIN ETXERRE BARRIO  
823404040/943333786  
xabin@tx4lo.com www.tx4lo.com

aurreiritzi edo ideia okerretara eramaten gaitu. Hortaz, geroz eta ezagutza handiagoa izan, gauzak argiago ikusten dira, errealitateak hurbilako kokatzen gara.

Xabin: Aurrekoan, kazetari batek galdetu zidan ea GIB birusak ba ote zuen esateko ezer antzerki obran. Zuk zer uste duzu?

Intza: GIBak gauza asko ditu esateko. Askok! Badu honek ere hustutzeko beharra eta obran zehar egiten du. Baina hori jakiteko, hobe antzezlanak ikustera etortzen badira ezta? Xabin? Ajjajajaja

Xabin: Zuk bai jakin nola saldu ondo produktua!

Intza: Ez da hari buruz hitz egiten edo hobeto esanda hari buruz esaten dena aurreiritzietan oinarritua dago eta horrek asko haserretzen du GIBa. Egun eman diren aurrerapausoen berri eman behar da, ikustarazi egin behar da egun IHESaren egoera ez dela duela hamarkada batzuetakoa, bestela GIBaren inguruan gaizkiesaka jarraituko dugu eta!

Xabin: Arrazoi guztia duzu... Eta, ulertzen duzu nik orain arte kontatu ez izana eta sekretua urte luzez gorde izana?

Intza: Noski. Gizartean IHESaren ingruuko iritzi oso distortsionatu bat dugulako. Askok aspaldiko errealitatea ekartzen dute gogora eta horrek larridura eragiten du. Beraz, GIBa duzula esateak jendeari pentsarazi diezaiokete IHESA duzula eta hortaz gaixotasun larri eta kutsakor bat duzula. Beraz, normala da iritzi horien beldur sekretuan mantendu nahi izateak. Oso ausarta da antzezan hau egitea eta jendeari boz goran seropositiboak zarela esatera ausartzea. Baina ausarta bezain beharrezkoa.

Xabin: Baina badakizu nik aldi berean beldur askorekin jarraitzen dudala... Uste

duzu antzerki obra honek lagunduko duela gizartea pixka bat hezten?

Intza: Noski! Niri adibidez lagundu dit, eta hortaz ikus-entzuleek gauza bera bitzituko dutela iruditzen zait. Gainera, asko izan dira antzezlanaren ostean gerturatu eta horixe adierazi didatenak. Askok esan dute oso beharrezkoa zela hau.

Xabin: Badakizu zer esaten didan niri obra ikusi duen jende askok? Bete betean asmatu zuela Aitziber Garmendia gure zuzendariak zu aukeratu zintuenean paper hau egiteko. Eta nik berdina pentsatzen dut. Aktore zoragarria, eta pertsona ezinhobea zarela eta zuri esker gehiago maite dudala nirekin bizi den birus txikia.

Intza: Aiiii Xabiiin...(negarrez hasi behar ote gara berriz...) Ba nik gauza berbera. Nik asko eskertzen dizut zure bihotza horrela zabaldu izana. Ez da erraza, badakit, baina hala ere egin duzu eta oso eskuzabala da zure partetik. Honek jende askori lagunduko dio. Eta bestetik, Xabin oholtzalagun, bizilagun eta bidaiaria lagun bikaina zara! Zure alboan berdin zait birus zikin bat banaiz ere! Jajajajaja

Xabin: Joango gara herriko terraza batetara eskutik helduta kafesne bat hartzera?

Intza: shhhhh! Ez egin spoilerrik...

### **Xabin Fernández.**

Gipuzkoar kazetaria. Berriemaile, erredaktore eta aurkezle lanetan ibilia da Euskal Telebistan. Gaztea irratiko Dida irratsaioako aurkezleetako bat da. [1]

2023an Kanpora sartzen antzezlanak sortu zuen Intza Alkain aktorearekin batera, Aitziber Garmendia zuzendari zela. Fernandezek esperientzia propiotik sortutako lana da, eta seropositiboak zela jakin zuenetaik izandako bizipenak kontatzen ditu.